

KANALAK

Bezeroek garrantzi handia dute, haiek direlako gure sarreraren portzentaia handiena. Horregatik, haiekin edukiko dugun kontaktu mota oso garrantzitsua da gure proiektua saltzeko edota gure merkatu-segmentua zabaltzeko.



Gure kasuan, proiektua sagardotegi eta diskoteka batena denez, gure merkatu segmentua, batez ere, 16-40 urteko pertsonak osatuko dute, (nahiz eta sagardotegiaren bezeroetan 40 urtetik gorako jendea ere izango dugun) horregatik, Instagram, Facebook, Twitter eta beste hainbat sare sozialen kontu bat egitea aproposa iruditzen zaigu, izan ere, gaur egungo gazteek egunero ordu asko igarotzen dituzte sare sozialetan. Gainera, sare sozialak gaur egungo berrietaz jakiteko primerako baliabidea direnez, geroz eta pertsona gehiagok erabiltzen dituzte.



Sare sozialez gain, webgune bat ere sortuko genuke, bertan geure helbide elektronikoa, telefonoa eta ordutegia agertuko lirateke gu eta bezeroen arteko komunikazioa are gehiago errazteko.



Honi dagokionez, hau da, harremanari dagokionez, telefono bidez edo lehen aipatutako sare sozialen eta webgunearen bitartez egingo genuke, eta bezeroek gure prezioak, ordutegiak, mahaiak erreserbatzeko edota bestelako zalantzak argitzeko erabiliko genituzke.



Hala ere, bezeroek gure zerbitzuak baloratzeko, kexak jartzeko edo iradokizunak egiteko ere erabiliko genituzke baliabide hauek guztiak, izan ere, gure produktua saltzeaz gain gure proiektua hobetu nahi dugulako.

